

Kantubanek aurreneko saria lortu du Errenteriako Gabon Kanten Lehiaketan

Hernaniko abesbatzak irabazi zuen sari nagusia, larunbatean. Eragiyok astigartarrak ez zuen saririk lortu.

HERNANI-ASTIGARRAGA KANTUA

Larunbatean egin zen, 73garrenez, Errenteriako Gabon Kanten Lehiaketa ezaguna; eta bertan aritu ziren kantari, bailarako bi abesbatza; baita ederki aritu ere! Aurreneko sariarekin bueltatu zen Hernanira, Kantuban abesbatza, ezin hobeto eskaini baitzituen bere bi piezak, Alain Ayerdi zuzendari berriak gidatuta: *Tan, tan! Erregeak datoz*, Cesar Geoffrayrena; eta *Candombe de San Baltasar*, Abel Montenegro eta Liliana Cangianorena.

Horiekin, 800 euroko diru saria eta ikusleen txalo zaparrada ederra jaso zuten hernaniarrek, Galtzaraborda kirolde-



Kantuban abesbatzako kideak, larunbatean Errenterian, Gabon Kanten Lehiaketan kantatu aurretik.

giko harmailak beteta zirela. Bigarren izan zen Errenteriako Galtzagorri abesbatza, eta hirugarren Bergarako Orfeo Gaztea.

Aurtengoan, ezin izan du saririk lortu Astigarragako Era-

giyok abesbatzak, joan den urtean irabazle izan ondoren. Astigartarrak eskaini zituzten Aita Donostiaren *Gabon* eta Benito Orbegozoren *Olentzero bidatara* piezak, Eneko Amunda-

rainek zuzenduta.

Zazpi abesbatza aritu ziren larunbat arratsaldeko saioan, eta lehiaketaren bukaeran, guztiek elkarrekin abestu zuten azkeneko pieza: *Hator, hator*. **K**

Ekhine Balerdi txapeldun, Sakanako Torneoan

Bigarren mailako finala irabazi zuen hernaniarrak, Paula Gorostiagarekin batera (30-27). Amaia Irazustabarrenak ezin izan zuen lehenengo mailakoan, eta 20-30 galdu zuen, Leire Azanza lagun, Murillo eta Igoaren kontra.

HERNANI PALA

Txapelketaz txapelketa eta finalez final, lanpetuta dabilta egun hauetan, Hernaniko palistak. Sakanako Torneoaren finaletan izan ziren larunbatean, Etxarri-Aranatzen, Ekhine Balerdi eta Amaia Irazustabarrena; eta aurrenekoak ekarri zuen txapela Hernanira. Bigarren mailako finala irabazi zuen Balerdik, Paula Gorostiagarekin batera, Olatz Zulaika eta Naroa

Otxoaren kontra (30-27).

Irazustabarrenak, aldiz, ezin izan zuen lehenengo mailako finalean. Leire Azanzarekin bikotea osatuta, galdu egin zuen, Uxue Murillo eta Irati Igoaren kontrako (20-30).

Atzo iluntzean, beste txapelketa batean ere aritu zen Irazustabarrena bera, Getxon, Nesken I. Gabon Kanielan. Amaia Araiztegirekin jokatu zuen, paila larruz; eta aurrean izan zituzten Isasmendi eta Murga,



Amaia Irazustabarrena eta Ekhine Balerdi, Sakanako Torneoako finalak jokatu.

eta Flaviano eta Mendizabal. Jaialdia ETBk grabatu zuen, eta bihar eskainiko du, eguerdiko 12:00etan, ETB4 katean.

Hori baino lehen, ordea, Gabonetako Txapelketaren finala jokatu du Garazi Urdangarin

hernaniarrak, gaur arratsaldean, Ataunen. Nahia Eizmendi aiarrarekin ariko da bera.

Eta bolada ona borobiltzeko, Irazustabarrenak eta Araiztegik jokatu dute Bizkaia Torneoaren finala, larunbatean. **K**



Azkeneko eguna gaur, ludotekak

HERNANI KIROLDEGIA

Ludoteka jarri zuten Hernaniko kiroldegian, joan den astean zehar, hainbat egunez; eta gaur jarriko dute azkeneko, goizeko 10:00etatik 13:00etara.

'Supertramps' filma, jangelan

GOIZUETA ZINEA

Zineaz gozatzeko aukera izanen dute gaur, Goizuetako gaztetxoek. *Supertramps* marrazki bizidunetako filma jarriko dute Xalto eskolako jangelan, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Gaur hasiko da komiki tailerra, Axpiren eskutik

HERNANI UDAL LIBURUTEGIA

Hiru eguneko komiki tailerra antolatu dute Hernaniko Udal Liburutegian, eta gaur bertan hasiko da, 11:00etan. Ainara Azpiazu Axi komikilari eta marrazkilari hernaniarrak eskainiko du, eta bihar eta etzidamu izango dira beste bi saioak. Parte hartzeko, aurrez eman behar zen izena, doan.

Saio irekia gaur, pelotan aritzeko

ASTIGARRAGA MUNDARRO

Mundarrok antolatuta, pelota probatzeko saio irekia egingo dute gaur, 2012an jaiotako haurrentzat. 17:00etan izango da, Txomifene frontoian.

Bilboko pinera joateko, sarrerak

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Bilboko pinera irteera antolatu du Xaguxar aisialdi taldeak, urtarilaren 3an. Baina joateko, aurrez erosi behar dira sarrerak, kultur etxean. 20 euroan daude salgai, bukatu arte.

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

GABON HAUETAN OPARITU EDERTASUNA ETA ONGIZATEA
nibiru
UNISEK EDERTUNTZA ZENTROA
SPA Tratamenduak
Mikro pigmentazioa
Masajeak
Indiba Tratamenduak
Manikura
Pedikura
Fotodepilazioa
Automakillaje ikastaroa
IZPIZUA, 1 HERNANI
943 24 35 60
www.nibiruedergintza.com

ATZA
Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatztatuberna@gmail.com

EGURALDIA
GAUR
Tarteka laino batzuek sartuko badira ere, eguzkia izango da jaun eta jabe berriro. Egunaren hasieran eta bukaeran hotz egingo du, eta eguerdian espero da giro epelagoa, bereziki kostaldean.
Min.4° / Max.14°

BIHAR
Berdintsu jarraituko du bihar goizean, eguzkitsua; baina pixkanaka aldatuz joango da: goi-lainoak ugartuko dira aurrena, eta behe-lainoak sartuko dira egunaren bukaeran, zerua estaliz. Baliteke euri pixka bat egitea ere. **Min.4° / Max.13°**

ARGITARATZAILA
DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko
Udala

Asigarragako
Udala

Erditortzio
Azulo Udala

GOZUETAKO
UDALA

ARANOKO
UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Eguztez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Gabonetako liburu eta disko azoka, bihar goizean Plaza Berrin

10:30etatik 14:00etara egongo da, Kaleko elkartaren eskutik, 1.000 liburu eta disko baino gehiagorekin. Material biketa ere egingo dute bertan.

HERNANI KALEKO ELKARTEA

Urteroko ohiturari eutsi, eta Gabonetako liburu eta disko azoka jarriko du bihar, Kaleko Elkartean eta Kultur Elkartean, Hernanin. Plaza Berrin izango da, goizeko 10:30etatik 14:00etara.

Bertan aurkituko dituzte herritarrek, «egoera onean dauden 1.000 liburu, disko eta CD baino gehiago», aurreratu dutenez.



Bihar jarriko dute liburu eta disko azoka berriro, Plaza Berrin.

Gainera, aurrekoetan bezala, oraingoan ere material biketa egingo dute, azokako postuan. Horrela, nahi duenak, bertan eman ahal izango ditu, erabiltzen ez dituen liburu, musika CD eta binilozko diskoak. Eta jakinarazi dute, norbaitek materal

emanez nahiko balu, baina bihar bertaraterik izango ez balu, antolatzaileekin harremanetan jarri daitezke, helbide elektronikoa honetara idatzita: azokasolidario@gmail.com.

Informazio gehiago, webgunean: azokasolidario.eus. **K**

Reala Zarkumendegin ikusteko aukera, bihar

Astigarragako futbol zelaian entrenatuko du neska txuri-urdinen aurreneko taldeak, 10:00etatik 12:00etara.

ASTIGARRAGA FUTBOLA

Realaren aurreneko taldea zuzenean ikusteko aukera izango dute bihar goizean, Zarkumendegin gerturatzen direnek. Izan ere, bertan entrenatuko dute neska txuri-urdinek, 10:00etan hasi eta 12:00ak arte; eta saioa irekia izango da, ikustera hurbildu

nahi duten guztientzat.

Emakumeen kirola «ikuserazi eta bultzatzeko asmoz», Gipuzkoako kirolan «erreferente» den taldea Astigarragara ekarri nahi izan du Mundarrok, urtea agurtzeko; eta bertaratzeko gonbitea luzatu die, Urumea bailarako bizilagun guztiei.

2019an Erreginaren Kopa irabazita, entzute haundia izan du Realak, urte honetan zehar; eta baita makina bat errekonozimendu eta omenaldi jaso ere. Urteko azkenekoak, Astigarragan jasoko ditu bihar, bailarako zaleen eskutik. **K**

Apaxi ipuin kontalaria gaur, Portun

HERNANI PORTU AUZOA

Gaur izango dute Portuko auzotarrek, Gabonetako bigarren ekintza berezia. Ipuin kontaketa saioa izango da, Apaxiren eskutik, arratsaldeko 18:00etan hasita. Bihar, berriz, Santa Barbarara mendi buelta antolatu dute, goizeko 10:30etan auzoko plazatik abiatuta, urte bukaera ospatzeko.

Mus txapelketa bana urtea agurtzeko, Umore Onan eta Kontrakantxan

GOIZUETA-HERNANI MUS TXAPELKETA

Urteari bukaera emateko, mus txapelketa bana antolatu dute bihar, Goizuetan eta Hernanin. Umore Ona elkartean izango da aurrenekoa, 16:00etan hasita. Bertan eman beharko da izena, bikoteko 10 euroan, eta sari ederrak izango dira: bikote txapeldunak 100 euro eta opariak; bigarrenak 50 euro eta opariak; eta hirugarren eta laugarrenak opariak. Hernanin, berriz, Kontrakantxa gaztetxean antolatu dute mus txapelketa, 16:00etan hasita hori ere; eta 5 euro izango dira izenematea, bikoteko. Aurreneko hiru bikoteek jasoko dituzte sariak.

Apuntatzeko aukera gaur, Tilosetan

HERNANI SAN SILBESTREA

Bihar izango da, urtero bezala, Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa, Hernaniko kaleetan. Arratsaldeko 18:00etan Plazatik abiatuta, 4 kilometroko ibilbidea osatuko dute herritarrek, urtea korrika eta umore onean bukatzeko. Izenematea zabalik daude gaur 20:00ak arte, www.rockthesport.com web orriari; eta bihar ere izango da aukera, irteera gunean, 16:30etatik aurrera. Baina gaur bertan, beste aukera bat ere izango da: postua jarriko dute Tilosetan, 16:30etatik aurrera, bertan izena eman ahal izateko.

Trajeak badaude oraindik, paje izateko

HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Datorren igandean izango dira Errege Magoak Hernanin, eta arratsaldeko 18:00etan hasita, kabalgata egingo dute, herrian barrena. Bertan paje gisa parte hartu nahi duenak, aukera dauka oraindik: trajearen bila pasa behar du Berriak elkartaren lokaletik (Andre-kale 30), goizeko 08:30etatik 13:30etara.

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun neska euskaldunak, lan egingo luke tabernan, gauz. Deitu: 637 993 061 Iñigo Royo Masajista. Masajista, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Jaialdi ederra eta Gorrotxategiri omenaldia, larunbat honetan

Pelotari hernaniarra omenduko dute kiroldegiko frontoian, eta bi partidu haundi jokatuko dira; Olazabal, Xala eta Pascual profesional ohiak, tartean.

HERNANI-GOIZUETA ESQU PELOTA

Arratsalde ederra izango da datorren larunbatekoan, Hernaniko Pelota Eskolarentzat. Izan ere, maila haundiko jaialdia prestatu dute, eta Aitor Gorrotxategiri omenaldia egingo diote.

Pelota Eskolaren argazkia egingo dute aurrena, 15:00etan; eta Gabonetako Txapelketaren finalak jokatuko dituzte txikiak ondoren, 16:00etan hasita. Eta 18:00etatik aurrera, bi partidu erakargarri, hiru profesional ohi tartean direla: Olazabalen kontra ariko da Ioritz Arrieta, lau terdian; eta Pascualekin jokatuko du Paul Ojuelek gero, Xala eta Azanzaren kontra.



Aitor Gorrotxategiri omenaldia egingo diote Hernanin, datorren larunbatean.

UMORE ONA TXAPELKETA - EMAITZAK

22 URTEZ AZPITIK	Oteiza-Otermin/Aristi-Salegi	7-22
HAURRAK	Aiur Elizazu- Xuban Iturbe/Etxenike-Madariaga	18-12
HAURRAK	Vertiz-Allende/Oihan Legarreta-Egoitz Elizegi	3-18
KIMUAK	Zubillaga-Alkorta/Axel Salaberria-Xanet Apezetxea	10-18
UMEAK	Mañel Seges-Mikel Zurutuza/J. Larin-M. Garmendia	7-18
UMEAK	Haritz Aranberri-Eñaut Aranberri/Beñat Narbarte-Alice Sagardui	10-18
UMEAK	Haritz Aranberri-Eñaut Aranberri/Araitx Legarreta-Josu Alsua	9-18

Asteburu borobila,

Umore Ona Txapelketan

Bestalde, azken txanpan sartu da Umore Ona Txapelketa, Goizuetan; eta borobila izan da asteburua, bailarako pelotari-entzate. Umeen mailako partiduetan, elkarren kontra aritu dira goizuetarrak; baina haurretan zein kimuetan, irabazi egin dute Elizazu-Iturbe hernaniarrekin, eta Legarreta-Elizegi eta Salaberria-Apezetxea goizuetarrek. **K**